

## ZUZENBIDE FAKULTATEKO BERDINTASUN BATZORDEAK 2015eko UZTAILAREN 24an EGINDAKO BILERAREN AKTA

### **Bertaratu diren batzordekideak:**

- Jokin ALBERDI (II)
- Maggy BARRÈRE (II)
- Arantza CAMPOS (batzordeburua)
- Garbiñe ESTEFANO (AZP)
- Leire IMAZ (II)

### **Bertaratu ez diren batzordekideak:**

- Ikasleen ordezkaria (ezin etorria adierazi du)
- Sofía ARANA (II) (ezin etorria adierazi du)

### **Batzordekide ez diren bertaratuak:**

- Oscar Arroyuelo (Ikastegiko administratzailea)

Berdintasun Batzordea, presidenteak zabaldutako deialdian jaso bezala, Donostiako Zuzenbide Fakultateko bilera aretoan bildu da 12:30ean.

### **Informazioa:**

- 1) Batzordeburuak aldi honetan egindako kudeaketen berri eman du, eta azaldu du zenbait bilera egin dituela UPV/EHUko Berdintasun zuzendariarekin eta Gipuzkoako Campuseko ikastegietako berdintasun batzordeetako arduradunekin.
- 2) Leire Imaz irakasleak honako hauen berri eman du:
  - a. -Fakultateko ikasle batek sexu aldaketa osoa egin du, eta berak hasiera-hasieratik jarraitu ahal izan du prozesua. Oso ontzat joan du.  
-Ikasle hori bere eskola batzuetara joan da ikasleei hitzaldiak ematera.  
-Ekainaren 28ko 14/2012 Legea idazten parte hartu zuen. Lege hori, hain zuzen ere, genero nortasunagatiko diskriminaziorik ezari eta pertsona transexualen eskubideen aitorpenari buruzkoa da.  
- Gertutik esku hartu du Lege hori garatzen duen Dekretua idazten; horren bidez, behin-behineko dokumentazioa

ematen zaie sexua aldatzeko prozesuan dauden pertsoneri. Azaldu digu aurki argitaratuko dela. -Ikasle horrek bere prozesuari buruz egingo du GRALa, eta batzordeburuak esandakoari jarraikiz egiten saiatuko dira, Berdintasun Zuzendaritzaren aipamenarekin.

- b. Interesgarria litzateke Fakultatean praktikan jartzea Alardeari buruzko rol joko bat; hain zuzen ere, 2013ko abenduan Rol Jokoen Nazioarteko Biltzarrean aurkeztu zutena.
- c. Aurtengo azaroaren 3an, 4an eta 5ean Bizkaia Aretoko Oteiza Entzunaretoan egingo diren jardunaldiek izenburu hau dute: IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES. II JORNADAS TÉCNICAS DE SENSIBILIZACIÓN Y TOMA DE CONCIENCIA DIRIGIDAS AL ALUMNADO, PROFESORADO Y PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DE LA SECCIÓN DE BIZKAIA DE LA FACULTAD DE DERECHO DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO.

#### **Hartutako erabakiak:**

- 1) Aurreko akta onartzea.
- 2) Gune publikoak pertsonalizatzeari dagokionez, eta aztertutako proposamenak ikusirik, Batzordeak aho batez erabaki du honako proposamen hau helaraztea Fakultateko dekanu Juana Goizueta andreari:
  - a. Donostiako Fakultatean "Clara Campoamor" izena jartzea gune bati, Andoni Polo Roca Zuzenbide Fakultateko ikasleak proposatuta.
  - b. Leioako Fakultatean "Aurora Arnaiz Amigo" izena jartzea gune bati, Amaya Egurrola, Emi Gómez, Elena Ramos eta Aitor Torre Zuzenbide Fakultateko Idazkaritzako langileek proposatuta.
- 3) Batzordean baja eman dutenei buruzko informazioa: Garbiñe Estéfanok eta Maite Barruetabeñak jakinarazi dute Batzordeko kide izateari uzteko erabakia hartu dutela. Izan ere, Maite Barruetabeñak Unibertsitatea utziko du, beste etapa profesional bati ekiteko: Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendari nagusi izango da. Garbiñe Estéfanok, bestalde, beste

proiektu batzuetan jardungo du; esaterako, baterako hezkuntzari buruzkoan. Batzordeburuak, Batzorde hau osatzen duten kide guztien izenean, eskerrak eman nahi dizkie biei, eta adierazi du haiek joatea galera handia izango dela Fakultatearentzat eta Batzorde honentzat. Bada, eskerrik beroena eman nahi diegu batzordekide izan diren aldian egindako lan handiagatik. Ekingo dioten bide horretan zortea, zoriontasuna eta arrakasta izan ditzatela opa diegu.

4) Batzordearen osaera berria:

- a. Erabaki da batzordeburuaren proposamena onartzea: hau da, Maite Bengoa Anitua izatea batzordekide berria ikasleei dagokien postuan. Hari berari eta Ikasle Kontseiluari jakinaraziko zaie.
- b. Erabaki da hainbat kudeaketa egitea pertsona jakin batzuei eskatzeko Berdintasun Batzordeko kide izan daitezela, Maite Barruetabeñak eta Garbiñe Estéfanok utzitako karguak betetzeko. Leire Imazek Iikoen ardura hartuko du eta Oscar Arroyuelok, berriz, AZPkoena. Erabaki da formula horrek ez badu arrakastarik, Fakultateko Batzarraren hurrengo saioan eskaera irekia egitea.

5) Erabaki da hautazko kreditu bateko eskaera egitea "Igualdad de mujeres y hombres: II Jornadas técnicas de sensibilización y toma de conciencia dirigidas al alumnado, profesorado y personal de administración y servicios de la Sección de Bizkaia de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco" izeneko jardunaldirako. Bizkaia Aretoan egingo da, 2015eko azaroaren 3an, 4an eta 5ean. Leire Imaz irakasleak (hark proposatu zuen jardunaldia egitea) proposamenetarako epea irekitzen denean egingo du eskaera; ziur asko, irailean. UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzak 700 euroko diru laguntza eman du jardunaldirako; Leire Imaz irakasle eta batzordekideak eskatu zuen bere garaian, eta Berdintasun Batzorde honetako buruak oniritzia eman zion.

- 6) Maggy Barrère irakasleak proposatuta, eta batzordekide guztiak ados daudenez, erabaki da beharrezko urratsak egitea, jardunaldi hori Donostian ere antolatu ahal izateko.
- 7) 2015/2016 ikasturteko jardueren proposamena:
  - a. Ikasleen proposamenak biltzea, Batzorde honek oinarrian dituen balioak lantzeko, "pintxo pote" baten bidez, eta haiei erakustea prest gaudela laguntza eta babesa emateko. Hasiera batean urria proposatu da hori egiteko.
- 8) Erabaki da oraingoz data hauek ezartzea Batzordearen hurrengo bilera egiteko:
  - a. Irailaren 17a, osteguna: 13:00
  - b. Urriaren 13a, asteartea: 13:30

Sinatua: Arantza Campos

Batzordeburua

Bilera 14:30ean amaitu da.  
Donostian, 2015eko uztailaren 25ean

Sin.: Arantza Campos  
(Batzordeburua)